

Euskarak denbora lagun

ARTURO CAMPION EUSKALTEGIA

Comedias karrika 14, 4.a
31001
IRUÑEA

948 22 22 46

www.campion.ikanet.net



HITZAURREA

Poetak idatzi omen zuen: *Nora ote dihoa denbora aldakorrak daraman bidea...*
Bide hori hartu nahi dugu guk ere, liburuxka hau lagun dugula.

Denborazko perpaus eta hitzak ditugu mintzagai eta langai; denboraz nola mintzatu, nola aritu, nola jostatu, nola gozatu... Euskaraz era askotan mintzatu ohi gara denborarekin lotutako burutazio, sentipen, hausnarketa, pasadizo, gertaera eta bizikizunez.

Horretan aritzeko duzu liburuxka hau: lagungarri, zalantzen argibide eta ikasbide. Ikasleen kezkak eta zalantzak bildu ditugu, hau da, ikasleen jarduna dugu abiapuntu: ondoko erderen eraginez sortutako zalantzak argitzea, erabilera egokiak proposatzea, azken finean, hitzunen mintzamoldea aberastea.

Horretarako, esan bezala, denborarekin lotutako hainbat kezka eta zalantza bildu ditugu, eta horiek argitzen saiatu gara. Hobeki esan, gu ez, baizik Pantxika irakasle orojakilea izan da bere ikasle saiatuen galderei erantzuten saiatu dena. Pantxikaren katuak, Pitxitxik, ekartzen dizkio ikasleen mezuak, eta Pantxikak gustura erantzuten die mezuei, beti laguntzeko prest.

Liburuxkak 24 atal ditu eta atal bakoitzak hiru zati: lehenik **sarrera** ttiki bat, ondoren **ikasleen kezka edo zalantza azaltzen duen mezua**, eta, azkenik, **Pantxikaren erantzuna** ahalik eta adibide gehien emanaz, bere azalpenak ulertarazteko.

Bi aurkibide ere baditu, erabiltzaileak kontsultak modu errazean eta azkarrean egiteko. Atalkakoa lehena, liburuxkaren hasieran, eta edukien arabera bigarrena, alfabetikoki ordenatua, liburuxkaren azkenean.

Horra bada, irakurle, goza ditzazula orrialde hauek.

DENBORA ETA EGURALDIA BI

Eguzki amandrea joan da amandrearengana; etorriko da bihar, eguraldi ona bada.

Alegia, denbora eta eguraldia ez dira gauza bera, ez datoz bat bizidunontzat hain inportanteak diren bi kontu horiek.

Euskaraz, gaztelaniaz ez bezala, hitz bat baino gehiago erabiltzen dugu *tiempo* adierazteko; halatan, *eguraldi* esaten diogu -hala definitzen du hiztegiak- halako **une** batean, atmosferak (eguratsak) duen egoerari.

Denbora, aldiz, Ibon Sarasolaren definizioan, gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabeari.

Beraz, urazak (letxugak), tomateak, on-onak izateko, lau gauza behar ditu baratzeak: lur ona, **eguraldi egokia**, baratzariaren artatze lanak eta **denbora**, jakina. Horiek baratzeak, baina gizakumeak zenbat behar ditu? Honek ere lau behar omen ditu. Kantak hala esaten du, behinik behin:

*Gizon gazteak bizitzeko
behar ditu lau gauza:
lehen lehenik irudia,
oso alaia bihotza;
dirua franko sakelan, eta
bizitzeaz ez lotsa.*



*Tira, mutilok, *jetxi beharko gara aterpera, ekaitza *dator; eta gainera iluntzen hasi *da. Esan nuen lehengoan mendian genbiltzala... eta esan banuen, esan nuen! Orduan, lagun batek: Aizu, Olaia, horrela hitz eginda aterako duzu zuk, bai, zorioneko EGA! Pello Zabalaren eguraldi iragarpena aditzeak ere ez dizu, ez, kalte egingen, alajaina! Zer esan nuen nik, bada, oker, Pantxika? Olaia.*

Erantzuna

Ez larritu batere, Olaia, hori kontu erraza baita. Eguraldiaz ari garenean, ez da esaten *euria ari *da*, baizik eta ***euria ari du, ari zuen, ez du ari***. Euskal mitologiak eragindako kontu bitxiak dira. Halaber, *argitu *da*, ez, baina ***argitu du, argitu zuen, berehala ilunduko du, dagoeneko ez du euririk ari, atertu du, elurra mara-mara ari zuen, hoztu du, berotu du...***

Ekaitzaren kasuan, ***ekaitza dakar*** da ohiko esapidea.

Ikusten duzu, Olaia? Hauxe da dena. Bukatzeko, gogoratu euskara batuan *jetxi* ez, baina ***jaitsi*** erabili behar duzula. Musu handi bat!

Pantxika.

URTAROAK

Nori ez ote diote eragin eta eragiten urtaroz urtaro gertatzen diren aldaketek? Beti sortu ohi digute, txiki-txikitatik, halako harridura, eta heldutan ere bai, eta ez gutxitan gainera, bihotzerainoko lilura. Hiztegi txiki batek honela definitzen du oinarrizko hitza *aro*, alegia:

Aro: *modu ziklikoan errepikatzen den denbora-unitatea. Hortik, olentzaro/onentzaro, biziarioak, azaro, gaztainaro eta abarreko terminoak. Horien artean, jakina, urtaro.*



Aizu, Pantxika: nola arraio igartzen ote diote landareek udaberriaren etorrerari?
Ana.

Erantzuna

Hauxe da **txikitan**, geure buruari **behin baino gehiagotan** denok egiten genion galdera.

Gizakiarentzat, eguzkia Piscis konstelazioan sartzen denean hasten da udaberria. Geografia testu-liburuek, behintzat, hala esaten dute. Baina landareek beren begiak, hostoak eta loreak irekitzeko, nola igartzen dute udaberria badatorrela?

Denok badakigu Iturengo joaldunak joareen zaratotsaz ama lurra esnatzen, iratzartzen saiatzen direla, udaberria ate joka datorrela abisatzen diotela. Zientzialarien erantzuna, labur-labur esanda, honako hau da, ordea; hiru faktorek eragiten baitute udaberriaren etorrera:

LEHENIK

Argitasunaren handitzeak, hau da, landareen energia iturri nagusia handitzeak.

BIGARREN(IK)

Batez besteko tenperaturaren igoerak (3-4 gradukoa izaten da).

AZKENIK

Ebapotranspirazioak, eta halatan, zuhaitzak-eta, **lehenik** kimutan ageri, **ondoren** hostatu, eta, **azkenik**, loratu egiten dira.

BIZIAROAK

Honako hauek dira gizakiaren biziakoak izendatzeko erabiltzen ditugun hitzak:

hautzaro, gaztaro, helduaro, zahartzaro.

Biziakoak: Bizia banatzen den zati bakoitza? hori da biziako? besterik ez? Batek baino gehiagok ezetz esan du, biziakoak definizio xume hori baino askoz gehiago direla, gure bizialdiaren alderdiak direla, gu geu, lau zapabost argazkitan islaturik. Pragmatikoei, aldiz, antzinako atsotitza aipatuta, biziako zer den galdera horri, honela ihardetsiko diote: *Ona bere txarrarekin*. Alegia, biziako bakoitzak, munduko gainerako gauza guztiek bezala, baditu bere alderdi on-txarrak, bere gazi-gozoek, bere aitzin-gibelak, finean, biziakoek ere... atzean xulo!



Pantxika, Maitane nauzu, bai, dantza eskolakoa. Begira, **pixka bat* harrituta gelditu nintzen lehengo eguneko hitzaldian gauzatxo baten kontura. Izan ere, hizlariak, batzuetan, **gazte jendea** esaten baitzuen, eta beste batzuetan, ordea, **jende gaztea**. Gauza bera da? Aguuuuur! Maitane.

Erantzuna

Gazte jendea esatean multzoaz ari gara, gazteriaz (ez **gaztediaz*), eta **jende gaztea** esatean, berriz, jendea nolakoa den azaltzen ari gara.

- Herri honetako **gazte jendea** haserre dago alkatearekin festetan tabernak goiz itxi nahi dituelako.
- Zahar-etxekeo festan **jende gaztea** ere bazen.

Eta, zure mezuan, komentatu nahiko nituzkeen gauza pare bat bada:

- *Pixka bat* horrek izenarekin ligatzen du. **Turroi pixka bat** jan dut.
- *Un poco* graduakari denean, orduan xamar erabiliko dugu: **handi xamarra** da, **haserre xamar** joan zen... eta **harritu xamar** gelditu nintzen.

ADINA

Zein da adin politena? Eta biziaro onena? Aurki guztiak bere binperra.

Hau erakusten digu atsotitz xahar honek eta ez da guti, poliki aztertuz gero. Badira adinarekin lotuta atsotitz alaiagoak ere, jakina, umorez josiak, Erronkariko hau lekuko:

Jateko gizonko, lanerako mutiko.

Izan ere, adinak, eskailerak bezala, maila asko baititu, eta, halatan, urteak eta adina, batzuetan, zehatz uztartzerik ez da izaten. Hiztegiak -serio demonio- honela definitzen du adina: *norbaiti buruz, jaio zenetik igaro den denbora*. Entziklopediak, bere aldetik: *Bizitza banatzen den zati bakoitza, norbaiti edo zerbaiti buruz sortu edo eratu zenetik igaro den denbora*.

Burura etortzen zaizkigun lehen bi galderak hauexek ditugu:

1. noren / zeren / zeinen **adina**?
 - Bernardo Atxagaren **adina**.
 - Zuhaitz baten adina, Unibertsoaren adina, harrien **adina**.
 - Ikasle gazte **horren adina**.
2. zein / zer **adinetakoa zara**?
 - Zure anaiaren adinekoa naiz / zure anaia eta biok adin berekoak gara.



Pantxika, bihotzekoa, lantxo bat egiten ari naiz eta ez dakit ziur nola esan behar diren **menor de edad**, **mayor de edad** eta horrelakoak, eta, egia esan, lotsa pixka bat ematen dit irakasleari galdetzeak. Gehiegi eskatzea ez bada, gaur bertan erantzun, **presa asko* dut eta. Eskerrik asko.
Maddalen.

Erantzuna

Gaian , baino lehenago, ohartxo bat maitea: *presa *asko* esan duzu, baina ez zara kontatzen ari presa bakarra duzula, ezta? Ala gehiago dituzu? Hori bai, nolako presa duzu? norainokoa? Zenbaterainokoa? Hobe kasu honetan **presa handia**, erabiltzea. Ongi da?

Zure galderaren erantzuna honako hau:

Adin txikitasuna: **adin txikiko**, **adingabe**.

Adin nagusitasuna: **adinez nagusi**, **adin nagusiko**, **heldu**, **adineko**.

Hirugarren adinekoak: **adin handiko**, **adinean sartua**.

Lagungarria izan zaizulakoan, izan ongi, Maddalen.
Pantxika.

DENBORAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT HITZ ETA ATZIZKI

Atzizki bakoitzak bere funtzioa betetzen du, zerbait espezifikoa erakusten du. Beraz, atzizkiak erabiltzean, geure buruari egin beharreko lehen galdera hauxe dugu: Zertarako balio du atzizki horrek? Funtzio hori betetzeko *oinarri* bat, *lagun* bat behar izaten du. Batzuetan, atzizkia izenarekin ongi moldatzen da, beste batzuetan, adjektiboarekin edo aditz politen batekin, azken batez, lortu nahi duenaren arabera egiten du harremana. Emaizta oso ezberdina izanen du harreman mota bakoitzak. Atzizki batzuk, antzinakoak batez ere, guztiekin moldatzen dira, eta berdin elkartzeko dira izenarekin, numeroarekin, adjektiboarekin, aditzarekin...



Pantxika, **denbora atzizkiak** niretzat duda-mataxa dira. Ez dakit zer egin. Eta beta, astia... eta horiekin guztiekin, zer esanik ez! Txoratzen hasia naiz!
Marina.

Erantzuna

Ez etsi, Marina! Jarraian, hitz eta atzizki horietako zenbaiti buruzko azalpentxo batzuk dituzu, ea lagungarri dituzun. Aurrera!

ALDI

Zerbait gertatu edo egin bitarteko denbora-zati edo tartea. Batzuetan izen gisa erabiltzen dugu, eta, beste batzuetan, atzizki moduan.

- Atzizki gisa, oso maiz erabiltzen ditugu horrelako hitzak: *hitzaldia*, *ibilaldia*, *atsedenaldia*, *kantaldia*...
Batzuetan haserretu egiten gara eta *haserrealdian* (haserre geunden tarte horretan), direnak eta ez direnak esaten ditugu; baita laster damutu ere, zenbaitetan.
- Izen moduan, horrelakoetan erabiltzen dugu: sinfonia baten *aldiak*, futbol partidaren bigarren *aldian*, lau *aldiko* motorra.

ARO

Izen gisa batzuetan, eta atzizki moduan beste batzuetan hau ere. *Aldi* bezalaxe, denbora zatia da, baina, hura baino luzeagoa izaten da.

- Atzizki gisa, honela erabiltzen dugu: *haurtzaro*, *uztaro*, *urtaro*...
- Izen moduan, berriz: eguberri *aroa*, Erdi *Aroa*, Burdin *Aroa*...

ASTI

Zerbaitetarako erabilgarri dugun denbora tartea. Askotan, egin beharrekoa bukatu eta gero izaten dugun denbora. Honatx adibide batzuk, ea zerbait argitzen dizuten: *ezertarako astirik gabe*, *ez dut hartarako behar den astia*, *astia zuen guztietan joaten zen*, *astiz eta kontuz egin behar da*, *astiki irakurtzen du*.

BETA

Gauza bat behar den moduan, ongi, eta presa gabe egiteko behar den denbora. Zerbait egiteko espres hartzen dugun denbora tartea.
Ez dut betarik, *ez nuen hartarako betarik*, *ez dut horretarako betarik*.

DENBORA UNITATEAK

Orain ehun urteko populazioaren zenbatek erabiltzen ote zuen *segundo* hitza? Inor gutxik. Eta erabiliz gero, zenbatetik behin? *Minutu* terminoa gehixeagotan, naski, baina, hala ere, bakanki. Egun, horrelako terminoen erabilpen-maiztasunari begiratu gero, harritu eginen ginateke. Eta errozko aldaketa honen koska non den? Mugimenduaren abiadura, jakina. Bai, egun batean, inortxok ere ez dakien egun batean, gauzak, pertsonak eta informazioa azkar mugitzeko ahalmenaren lasterketa baten hasiera izan zen, oraindik helmugara iritsi ez den lasterketa batena, hain zuzen.



Orduak, erdiak, laurdenak, minutu solteak... Ez dut ongi ulertzen Euskaltzaindiaren gomendioa. Lagundu, mesedez, Pantxika!
Bittor.

Erantzuna

Lasai, txikito! Kontuan hartu “*zein ordu da?*” galderari erantzutean, ***bostak*** edo ***bostak eta hamar*** erantzuten dugula. Eta, deklinatzen dugunean, hau da, “*noiz?*” edo “*zein ordutan?*” galdetzen dugunean, ***bostak*** deklinatzen ari garela, eta, beraz, pluralak ***bostetan*** eskatzen digula. ***Bostak eta hamar*** deklinatu behar dugunean, ***hamar*** hori singularrean dagoenez, ***bostak eta hamarrean*** erantzunen dugu. Minutuak aipatzen baditugu, singularrean deklinatu behar ditugu beti. ***Gutxi*** eta ***laurden*** mugagabeak direnez, ***bostak hamar gutxitan*** eta ***bostak eta laurdenetan*** esanen dugu. Txintxo portatu, Bittor, eta ongi ibili.
Pantxika.

Zer ordu da?	Zein ordutan?
ordu bata ordu biak / bi orenak/biak hirurak laurak bostak seiak zazpiak ...	ordu batean (ordu) bietan / bi orenetan hiruretan lauretan bostetan seietan zazpietan ...
ordu bata hamar gutxi ordu bata hamar gutxi ordu bata laurden gutxi	hamarrak hamar gutxitan hamarrak hamar gutxiagotan ordu bata laurden gutxitan
ordu bat eta erdiak ordu bi eta erdiak hiru eta erdiak	ordu (oren) bat eta erdietan ordu bi eta erdietan hiru eta erdietan
ordu bata eta bost hirurak eta hemezortzi laurak eta hoge	ordu batA ETA bostEAN hirurak eta hemezortziAN laurAK ETA hogeIAN
ordu batA ETA LAURDEN ordu bat eta laurdenAK hirurak eta laurden	ordu batA ETA LAURDENETAN ordu bat ETA LAURDENETAN hirurak eta laurdenetan

EGUNA ETA GAUA

Antzinatean, euskaldunek bi hitz erabiltzen omen zuten *aujourd'hui* edo *hoy* esateko: *egun* eta *gaur* hitzak, hain zuzen. Lehena, egun-argiarekin lotua, ilunpearekin bigarrena. Eta halaxe zeuden banaturik mitologiako izakiak ere. Haietarik zenbait egunez ibiltzen ziren, eta beste zenbait, gauez.



Pantxika, jakintsu hori, *egun on* esaten dugunean, nola erantzun behar da? Oker esanda dago: ***Egun on!*** eta gero *egun on* errepikatzea?
Gorka.

Erantzuna

Egun on! ez da eguraldiari buruzko komentarioa, Gorka. Agurtutakoak egun on izan dezala nahi dugu. Beraz, zuzenbidez, lagun horrek gauza bera desiratuko digu:

Baita zuri / zuei ere!

Gauza bera (opa dizut / dizuet).

Egun ona opa dizut, Gorka.

Pantxika.



Aupa, Pantxika, aizu, galdera bat; ***tal día como hoy*** esapidea ez da *gaur bezalako egun batean*?
Nuria.

Erantzuna

Kontua erraza da, Nuria; *gaur bezalako egun bat* edo *gaurkoa bezalako egun bat* gaurko egunaren ezaugarriak izanen lituzkeen eguna izanen litzateke (nolako eguna? egun argitsua, epela, euritsua, hotza... eta abarrekoa). Eta ez da hori guk adierazi nahi duguna, baizik eta ***gaurko egunaz*** (martxoaren 5ean, alegia) orain 57 urte jaio zen halako.

Pantxika.



Pantxika, potxola, esanen didazu, mesedez, nola deklinatu behar den ***gau*** hitza?
Marta.

Erantzuna

Gau hitzak deklinabide berezia du, Marta. Bokalez bukatzen direnak bezala deklinatzen da (*zubiarri* eta *gauari*, *zubirik* eta *gaurik*, *zubik* eta *gauk*, adibidez), mugagabeko instrumentalean (zerez kasuan) eta singularreko leku kasuetan izan ezik, horietan kontsonantez bukatzen direnak bezala deklinatzen da (*egun* bezala, adibidez): ***gauez***, ***gaueko***, ***gauean***, ***gauera***, ***gauetik***.

Singularrean	gauaz	gaueko	gauean
Mugagabea	gauez	gautako	gautan
Pluralean	gauez	gauetako	gauetan

ASTEKO EGUNAK

Egunak zazpinaka banatzea antzinako kontua da. Halaxe erabili zuten Egipton, Kaldean eta juduen gizartean. Greziarrek, aldiz, hilabetea hamar eguneko alditan banatzen zuten. Augusturen garaian, Erroman, 7 eguneko astea nagusitu eta hedatu zen inperioan zehar. Asteko egunak Jainkoei lotuta zeuden; Ilargiari, Marteri, Merkuriori, Jupiterri, Venusi, Saturnori...

Gurean, lehen hiru egunen izenak ezin ulerterrazagoak: *astelehen*, *astearte*, *asteazken*. *Ostegun* izena (ortzeguna) *Ortze* edo firmamentuari loturik dago, baita *ostiral* (ortziral) izena ere. *Larunbat* hitzak, ilargiaren zikloaren laurdena (astea, alegia) erakusten ote duen, eta *igande* hitza *igon* edo *igan* hitzekin lotura ote duen... teoriak teoria.



Zure beharrean nago, Pantxika; **asteko egunen laburdurak** ez ditut inon ere aurkitzen.
Felix.

Erantzuna

Felix, Felix... bazen Felix izeneko katua, ezta? Gureak Pitxitxi du izena, zuen mezu guztiak ekartzen dizkidana. Baina gatozen harira, honatx laburduren zerrenda:

Astelehen	al.
Astearte	as.
Asteazken	az.
Ostegun	og.
Ostiral	or.
Larunbat	lr.
Igande	ig.

Eta gogoan izan *noiz?* edo *zein egunetan?* galderei erantzutean, honelaxe erantzun behar dugula:

Astelehenean Asteartean Asteazkenean Ostegunean Ostiralean Larunbatean Igandean	Astelehen goizean Astearte eguerdian Asteazken arratsaldean Ostegun gauean Ostiral goizean Larunbat eguerdian Igande arratsaldean	ostiral goizeko 10etan
---	--	-------------------------------

Ea honek laguntzen dizun. Ongi ibili, Felix!

HIL EDO HILABETE?

Hilabeteen izenak hizkuntza guztietan oso adierazgarriak dira: Gauza handi zein txiki asko islatzen baitituzte. Euskararen kasuan, **urtarrila**, urtearen hasierarekin omen du lotura; **otsaila** otsoarena ote? Lupercaliak, Antzinako Erromako Inaute jaiak, otsoarekin lotuak, otsailean izaten ziren; **epaila**, inausketa egiteko aldia; jorraila, jorratze lanak egiteko mementoa; **maiatza** edo **loraila**; **iraila** edo **buruila** iratzea ebakitzeko sasoi eta buru egiten zuen hilabetea, hau da, hilabete honetan egiten omen ziren edo bukatzen ziren kontratuak, lan kontratazioak, etxez aldatzeak...; **urria**, batzuen ustez eguna edo argialdia urritzen hasten zelako, beste batzuen ustetan fruitu lehorren sasoi; **azaroa**, ereinara eta **abendua** Elizak latinetik hartutako terminoa (Adventum), hain zuzen.



Pantxika, bihotzekoa! Noiz erabili behar da **hil** eta noiz **hilabete**?
Mila esker.
Joxe.

Erantzuna

Joxe, hementxe duzu egin didazun galderaren erantzuna. Ea ulergarria zaizun.

- **Neurri gisa** erabiliz gero, beti *bete* hartzen du (singularrean zein pluralean). Adibidez: *hilabete eman du oporretan, duela bi hilabete etorri zen Ameriketatik*. Eta ez **hil bat eman du oporretan* edo **duela bi hil etorri zen Ameriketatik*.
- **Neurri gisa** erabili behar **ez** badugu, *bete* hitza gabe, ordu, aste eta urte bezala. Adibidez: *hileroko egiten du bidaia hori, hil honetan hasiko dira tonbola jartzen, datorren hilean joanen naiz etxe berrira bizitzera, hilean behin Iruna joaten naiz*. Kasu hauetan *hilabete* erabiliz gero, esaldi okerrak eginen genituzke.



Esango didazu **hilabeteen izenak nola deklinatu**? hilabeteen izenen **laburdurak** ere ez ditut inon ere aurkitu. Besterik ez dut behar. Mila esker.
Rosi.

Erantzuna

Rosi, bejondeizula! hau besterik ez baituzu behar. Honatx hilabeteen laburdurak:

urtarril	urt.
otsail	ots.
martxo	mar.
apiril	api. ; apr.
maiatz	mai.
ekain	eka.
uztail	uzt.
abuztu	abu.
irail	ira.
urri	urr.
azaro	aza.
abendu	abe.

Deklinabidea dela eta, gogoan izan, “noiz?” edo “zein hiletan?” galderei erantzuten diegunean, honela egin behar dugula: *urtarrilean, otsailean, martxoan, apirilean, maiatzean, ekainean, uztailean, abuztuan, irailean, urrian, azaroan* eta *abenduan*.

Oharra: Hilabeteen izenen hasierako letrak xehea behar du izan, ez larria.

URTEA

Txikitan, *urtea* zer zen galdetu, eta erantzuna haxe izaten zen anitzetan :
zuhaitz batek hamabi adar, adar bakoitzak lau habia, habia bakoitzak zazpi arrautza.
Edo, bestela, Urtezahar-gauean ahotsa beirituz, amatxik honela esaten zigun:
Olentzerok, urteak egun hainbertze begi ditu eta bat gehiago.



“**Zein urte da hau?**” galderari nola erantzun? Qué año es este?
Bingen.

Erantzuna

Honelaxe erantzun diezaiokezu “*zein urte da hau?*” galderari: *bi mila eta hamarra* edo *bi mila eta hamargarrena*. Hau da, zenbakiari –a edo bestela –*garrena* erantsi behar diogu. Zenbakitan idaztean, honelaxe eginen dugu: *2010a* edo *2010.a*. Gehienetan, ordea, –*garren* erabiltzen dugunean, urtea hitza ere sartzan dugu, honelaxe: 2010. urtea (irakurri, *bi mila eta hamargarren urtea*).

A, Bingen, eta kontuan izan zenbakiari, urtea adierazten duenean, milakoen puntua ez zaiola jarri behar: *2010* idatziko dugu eta ez **2.010*. Milatik gorako zenbakiek urtea adierazten ez dutenean, berriz, puntua jarriko dugu: 5.000 litro, 3.700 euro, 10.000 lagun...

Ongi izan.



**Urte hurrena* dela eta, askotan izaten dut zalantza; *ikastolaren *urte hurrena* ongi esana dago?
Iker.

Erantzuna

Bai, Iker, ongi esana dago, baina, idaztean **urteurren** idatziko dugu. Honatx hitz horrekin lotutako beste adibide batzuk:

- Ikastola **sortu zeneko 10. urteurrena**.
- Mitxelenaren **jaiotzaren 100. urteurrena** 2015ean izanen da.
- Aitona-amonen **ezkontzaren 50. urteurrena** ospatzera joan ginen.

Dena argi? Adio.

DATA

Zerbait baldin badago hertsiki loturik pertsonari eta bere ekintza nagusiei horixe da data. Sinatzearekin batera data jartzea da maizenik egiten dugun keinua. Gure jaiotzetik bertatik hasita, jaioteguna izaten baita gure lehen data, eta inportanteenetarikoak... *jaiotze data*. Eta gure egunak bukatzen direnean ere, gure *heriotza data* idatziko dute. Bitartean, den-denari jarri behar zaio data. Ezin imajinatu *datarik gabeko agiririk*. Egunero erosten ditugun produktuek ere han izaten dute *iraungitze/iraungipen data*.



Aupa, Pantxika, zer moduz zabilzate zu eta Pitxitxi? Zalantza gaitza dut; **data** idatzi behar dut agiri batean eta ez dakit nola; kontu erraza zela uste nuen, baina... usteak erdia uste!! Lagunduko didazu? Mila esker.
Sagrario.

Erantzuna

Sagrario maitea, ez da bada erraza izanen? Bai horixe! Haratx, data adierazteko formarik hedatuenak eta erabilienak honako hauek dira:

Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n) / Durango(n), 1983ko martxoak 7.

Dena den, bi horien artean ere, lehena da orain arte gehien erabili dena, bai *-n* kasu-marka (non / noiz) leku izenari eta egunari ezarrita, bai kasu-markarik gabe. Hori da, beraz, batez ere Euskaltzaindiak gomendatzen duena:

Durango, 1983ko martxoaren 7an / Durango, 1983ko martxoaren 7a.

Zenbaki bidez adierazteko, aldiz:

1983/03/07; 1983/III/07 nahiz 1983-03-07; 1983-III-07 (barra nahiz marra erabilia).

Hilabetea eta eguna bakarrik adierazi nahi denean, ostera, bi aukera ditugula esan ohi da:

urtarrilaren 20a edo urtarrilak 20

Kasu bigarren adibidearekin, forma hau erabiltzen dugunean ezin baita data deklinatu, hau da, okerrak dira horrelakoak:

**Otsailak 24tik 27 arte izango da ikastaroa.*

**Datorren otsailak 14 egingo dugu bilera.*

Beste zerbaiten aposizioan doanean besterik ezin da erabili:

Datorren ostegunean, urtarrilak 20, bilduko da epaimahaia.

NOLA ERANTZUN “NOIZ?” GALDERARI

Gaztelaniaren presentziak eraginda, askok, kalko ezegokia egin eta, batzuetan, lekuz kanpo gelditzen zaizkie euskarazko zenbait termino, hala nola: *nunca*, *alguna vez*, *este año*, *esta noche*, *este día* (actual) eta *este año*, *esta noche*, *este día* (del que estamos hablando).



Pantxika, mesedez, esan zergatik ez diren zuzenak honako esaldiak: “*izan al zara inoiz Etxalekun?*” “*Ez, *inoiz*”. Edo, “**ez dut ikusi inoiz ez*”.
Gloria.

Erantzuna

Zer moduz, Gloria, aspaldiko!

Inoiz eta **inoiz ez** ezberdinak dira. Begira, *inoiz* ez da *nunca*, baizik eta, ustezko memento bat, imajinatzen ari garen une bat, edo posible iruditu zaigun memento bat. *en alguna ocasión*, *en algun momento*, *alguna vez*. Beraz, galderetan ez ezik, esaldi supositiboetan eta aginteran ere erabiltzen dugu. *Nunca* esateko, **inoiz e z/ inoiz ere ez** erabiliko dugu. Adibide zenbait:

- *Izan al zara inoiz Etxalekun?* galdera hori egin duenak ez du aurretiko informazio-daturik; beraz, ez daki zer erantzunen dioten. Erantzuna ezezko erabatekoa baldin bada: *Ez, inoiz ere ez. Ez, inoiz ez naiz izan Etxalekun, eta ez dakit inoiz ere joanen naizen.*
- Esaldi supositiboetan: *Inoiz eskainiko balizute kostorik...* daitekeena da, baina ez dut uste eskainiko dizutenik, posibilitate hutsa da.
- Esklamazioetan, desioa adieraztean, *ojalá* zentzuan esana: *Inoiz aitatxo xintxotzen bada...* Aita jokalaria amorratua da; horrela segituko duelakoan nago. Ez dut uste aldatuko denik.
Ai, inoiz etorriko balitz...
- Aginteran ere erabiltzen da: *Ez diozu inoiz inori ere esanen! Ez esan inoiz inori ere nik kontatu dizudala!*



Inoiz eta **noizbait** oker aukeratzen ditut zorioneko test horietan, Pantxika.
Xatur.

Erantzuna

Ai, Xatur... Ez dira erantzuten errazak sorgintxo gaixo honi egiten dizkiozuen galderak, ez. Hala ere, hau azaltzen saiatuko naiz pare bat adibideren bidez:

- **Inoiz** horrela pentsatzera helduko banintz, *bizi-poza galduko nukeela badakit* Posibilitate hori hor da, bai, baina ez dut batere probablea ikusten memento hori helduko denik. Ez dut inondik ere espero horretara iristea. Ez nuke horretara iritsi nahi. *Inoiz*-ek erakusten duen uinea posibilitate hutsa da. Ez dugu espero.
- **Noizbait** horrela pentsatzera iritsiko naiz; *baina horrekin batera bizi-poza galduko dudala badakit*. Memento hori ez da zehatza; ez dakit noiz izanen den, baina egunen batean erreala izanen da; iritsi, iritsiko da, edo oso daitekeena da memento hori heltzea. *Noizbait*-ek erakusten duen mementoa, berez edo erreala da, edo benetan probablea da; guk hala ikusten dugu, ikusi.

GALDERAK NOLA EGIN?

Galdetzen dakienak, erantzunik izanen du; galdetzen ez dakienak bidea galduko du. Inork hizkuntzaren bat ikasiko badu, galderak zuzen egiten ikasi beharko du. Nekez erantzunen du zuzen-egoki, galderak egiten ikasi ez duen hark. Halaxe esaten zuen latin irakasle lizentziadun berri batek bere lehen eskoletan.



Egun on, Pantxika, aizu, *en qué año, en qué mes, en qué semana...* nola galdetu behar da batuan? Mila esker.
Lorea.

Erantzuna

Lorea maitea, gauza errazagorik! Begira, hitzaren bukaeraren arabera.

- Hitza kontsonantez bukatzen bada, adibidez; *egun, hil...* Honelaxe eginen dugu galdera: *Zein egunetan? Zein hiletan?*
- Bokalez bukatzen bada, berriz, adibidez; urte, mende, ordu, garai, aro... Honela: *Zein urtetan? Zein mendetan? Zein ordutan? Zein garaitan? Zein arotan?*
- *a* itsatsia baldin badu, adibidez; *hamarkada*, galdera honela: *Zein hamarkadatan?*

Galdera hauei erantzuteko hona hemen zenbait aukera:

- *Zein egunetan? Edo, zein hiletan?* Bada,
 - egun hartan
 - egun horretan bertan
 - egun berean
 - egun triste honetan
 - elur egunetan
 - hil honetan bertan
 - hilaren 16an
 - hil honen 16an (egutegian, zein hil den seinalatuta)
 - neguko hil hauetan

Honatx ekitaldiren baten berri ematean erabil daitezken forma batzuk, adibide gisa:

- **Datorren ostegunean, hilak 20, Zaldiko Maldiko elkartean bertso-saioa izanen da.**
- **Hilaren 20an, osteguna / ostegunarekin, Zaldiko Maldiko elkartean bertso-saioa izanen dugu.**

LEHEN

Batzuetan, atzera begira jartzen gara, hura eta beste hura gertatu, edo, zoritxarrez, gertatu ez zelako, eta aldi hartako musika, airea eta usaina etortzen zaizkigu gogora, eta *haiek ziren garaiak, haiek!* eskapatzen zaigu, edo, okerreneko kasuan, *garai gogorak, haiek!*



Hace ya, hace tiempo que, hacía tiempo que eta horrelako kontutxoak. Ez ditugu ongi ikasiak. Pantxika. Eta azterketa datorren larunbatean!
Xalba, Lontxo eta Bakarne.

Erantzuna

Ea, hirukote, zaudete lasai, kontua erraza da eta; zerbait zein mementotan gertatu den / zen galdetzeko, *noiz?* galdera egiten dugu. Baina, zerbait gertatu zenetik hona, zenbat denbora igaro den galdetzeko:

- ***duela zenbat denbora...***
- ***orain (dela) zenbat denbora ...?***
- ***zenbat denbora da...-ela?***

Baieztapenak egin behar ditugunean, horrelako esaldiak eginen ditugu:

- ***Bada urtebete Alemaniatik itzuli nintzela.***
- ***Urtebete da ahizpak haurra izan zuela.***
- ***Urtea bada etxea konpondu genuela; geroztik ez dugu itaxurik izan.***
- ***Duela zenbait egun, zuen amarekin egin nuen topo.***
- ***Badu bost urte elkar ezagutzen dugula.***
- ***Orain asko ez dela entzun dut abesti hori.***

Animo eta zorte on azterketan (beno, edo justizia, nahiago duzuen).
Pantxika.



Aizu, Pantxika, ***aspaldi*** eta ***aspaldian*** ez ditut bereizten. Eskerrik asko zure laguntza ederrarengatik.
Pello.

Erantzuna

Kontuz ibili gero, Pello, *aspaldian* eta *aspaldi* ez baitira gauza bera. Ez erabili *aspaldian aspaldi*-ren ordez.

- ***Aspaldi:*** duela denbora luzea, duela asko: *Hori aspaldi gertatu zen.*
- ***Aspaldian:*** azken bolada luzean. Aditz-aspektu burutuan beti (ikusi, eta ez ikusten): *Aspaldian ez dut ikusi (ez* ikustEN), maiz ikusi dugu aspaldian, aspaldian ez naiz Amaiarekin egon.*



Pantxika, **hamar urte honetan / hauetan ez dut behin ere ikusi**. Biak dira zuzenak? Rodri.

Erantzuna

Bai, Rodri, biak hala biak dira zuzenak. Lehen kasuan urteak, denak batera, multzoan hartuta, eta bigarrenean, aldiz, banan-banan. Lehen kasuan, halatan, hamar urteko epe honetan esan nahi du. Bigarrenean benetako plurala da, garbi utzi beharko dugu, beraz, zein diren urte horiek, testuinguruan zehaztu gabe baldin badaude.

Zenbat denbora da ez duzula zigarrorik erre?

azkeneko hiru urte honetan edo *azken hamar urtean* (2008tik 2011ra bitarte).

azkeneko hamar urte hauetan (2005, 2007, 2010).

Anitz urte honetan



Aizu, Pantxika, bihotzekoa: *entonces* eta **orduan** ez al dira parekoak? Esti.

Erantzuna

Esti maitea, *entonces* horrek gazteleraz funtzio ezberdinak betetzen ditu. Euskarak, ordea, kasu horietako bakoitzean bide ezberdinak eskaintzen ditu.

- **Beraz, hortaz:** *larrua oso zuria dut, beraz, babes handiko krema erabiltzen dut.*
- **Orduan:** *orduan ez genuen orain hainbeste diru, orduan garestia zen.*
- **Aldi hartan:** *aldi hartan hanka gaizki nuen eta ez nintzen ibilaldi hartara joan.*



Egia al da **oraindik** ez dela iraganean erabili behar? Eta zer erabili behar da, bada? Txutxin.

Erantzuna

Txutxin, maitea, iraganaz ari garelarik, ez dugu **oraindik** erabiliko, **artean** baizik. Hori bai, kontuan hartu ez direla modu berean erabiltzen, erreparatu adibideei:

- **Oraindik** ez da **etorri**
- Horretaz ez du **oraindik** ezer **esan**
- **Artean** (ere) Tourra irabazi gabea zen
- **Artean** ez zuen Paris ikusia
- Ez zuen **artean** ezer **esana**

ORAIN

Orain oraingo ta gero geroko!



Pantxika, laguntza mesedez! Txoratu beharrean nago kontu hau dela eta: noiz erabili behar dut **honezker**, noiz **jadanik**, eta noiz **dagoeneko**? Itziar.

Erantzuna

Itziar maitea, irakur ezazu esaldi hau:

Dagoeneko bukatu duzu?

Dagoeneko hitzak markatzen duen memento hori erreal da, erlojukoa, eta memento erreal horretan, zerbait egina dago, bukatua. Eta, gainera, uste genuena baino lehenago dago egina edo bukatua zerbait hori, eta, horrexegatik, harritu egiten gara. Kasu horietan *dagoeneko* edo *jadanik* erabiliko dugu:

- *20 urte baino ez ditu eta **dagoeneko** gerente izendatu dute.*
- *Bi lerro besterik ez dut irakurri eta **dagoeneko** sutan jartzen hasi naiz.*

Eta orain, irakurri beste adibide hau:

***Honezker** hamar aldiz bukatua nuen nik txosten hori.*

Honezker edo *gaurero* hitzek ez dute memento zehatza adierazten, baizik eta alde-alderakoa, gutxi gorabeherakoa, susmoa dugulako, subjektiboa da egin dugun kalkulua edo aurreikuspena, beraz mementoa gutxi gorabeherakoa da. Honatx adibide gehiago:

- ***Honezker** etxean dirateke* (hala uste dut nik behintzat, horretan nago, baina ez dakit egia den ala ez, orain hamar minutu iritsi diren edo iristekotan diren).
- ***Honezker** ez da etorriko.*
- ***Gaurero** Parisen izanen da* (dateke).
- Ezin izan dut bukatu lan hori, eta **honezker** ez dut bukatuko.
- Etxera zihoala esan du, buruko minez baitzegoen, eta **honezker** ez dut uste itzuliko denik.

GERO

Ilusioak, egitasmoak eta sentimenduak denborari loturik ditugu, gerora begirako jarrerak.



No pienso..., *nunca más pienso*, *tengo la idea de*, *he decido*, *he pensado*, honelako esamoldeetan zuzena da **phantsatu** aditza erabiltzea?
Erkuden.

Erantzuna

Erkuden, horrelako kasuetan phantsatu aditza erabili aurretik, jakizu asmoa, erabakiak eta betebeharrak adierazteko, honelako formak ere badirela:

- **-ko / -go / -en naiz / dut**
 - —Zer, Uxue, *etorriko* zara gurekin udako barnetegira?
 - —Hala uste dut. Senarrak umetxoarekin *geldituko dela* esan dit. Baina amatxi sendatzen ez bada, ez dakit nola moldatuko garen. Zuzenbidez, *joanen naiz*; nik behintzat joan nahi nuke.
- **-t(z)ekoa naiz / behar dut.**
 - —Beno, Unax, *etorri behar duzu* ala ez barnetegira?
 - —Bai, bai, konta nirekin, *joan behar dut*.
 - —Zer, Unax, urtero bezala abuztuaren bigarren hamabostaldian udako trofeoan parte hartuko duzu?
 - —Ez, aurten ez. Aurten barnetegira *joatekoa naiz* eta ezin izanen dut.
- **beharra naiz / beharra dut / beharreen nago**
 - Tira, lagunok. Banoa etxera, bihar barnetegira joatekoa naiz eta oso goiz jaiki *beharra dut*.
 - Atsedean hartu beharreen nago, benetan.



“Bi asteren buruan etxean izango naiz berriro” ez omen da zuzena. Ez dakit, bada, zergatik! Koadrilako guztiok horrelaxe esaten dugu, beti. Azalduko didazu, Pantxika? Mila esker.
Aurken.

Erantzuna

Nondik abiatu zara noiz etorriko zaren esateko? Orainetik, alegia, hitz egiten ari zaren mementotik hasita, bi aste kontatu dituzu; ezta hala? Kasu honetan bi aukera dituzu:

- a) **“Bi aste barru hemen izango naiz berriro”**. Zenbat aste barru?
- b) **“Hemendik bi astera hemen izango naiz berriro”**. Hemendik zenbat astetara?

Hauxe da kontua; oraintxe atera behar duzu etxetik, bi aste pasatuko dituzu kanpoan eta itzuli egingo zara.

Beste kasu bat da, bi asteak, ez orainetik, baizik eta iraganetik kontaktzen hasten bazara. Kasu honetan ere, bi aukera dituzu:

- a) “**Handik bi astera** itzuli nintzen”. Handik zenbat astetara?
- b) “**Bi asteren buruan** itzuli nintzen”. Zenbat asteren buruan?

“*Aurken joan den hilean Gasteizera joan zen, baina **handik bi astera** / **bi asteren buruan** itzuli zen*”.



Aupa, Pantxika. **azkenean** eta **noizbait ere** horien artean, zein da aldea?
Pablo.

Erantzuna

Pablo, **azkenean** bukaeraren parekoa da eta **noizbait ere**, berriz, zerbaiten zain luze egon eta zerbait hori egina ikusten dugun mementoan esaten duguna. Honatx zenbait adibide:

- **Noizbait ere** etorri zara, bazen garaia! honezkero etorriko ez zinela uste genuen. Tira, goazen azkar; filma hasteko dago.
- **Noizbait ere** meza bukatu zen, eta orduan izan nuen Arrosarekin hitz egiteko aukera.
- **Noizbait ere** ekarri didazu joan den urtean utzi nizun liburua!

- Kontzertuaren **azkenean** jo zituzten kantarik onenak.
- Ikastaroaren **azkenean** afari ederra egin genuen elkarrekin.
- Denboraldiaren **azkenean**, inoiz baino sasoikoago zebilen pilotaria.

LEHENAGO / BITARTEAN / GEROAGO

Ez da joan danaren itzultzerik (Axular).

Hainbat gauza noiznahi egin badaitezke ere, mundu honetako gauzarik gehienak, bere garaian, tenorean, bere orduan, memento egokian, hartarako aukera denean, egitekoak dira; bestela, aukera galdu egiten da edo bederenik, kontuak ez du orduko egitea merezi. Bestela esanda, ia dena, edo **zerbaiten aurretik**, hau da, zerbait gertatu baino lehen(-ago), garaiz lehen, goiz, alegia; edo **zerbaitekin batera**, zerbait gertatu bitartean, garaiz, behar den mementoan; edota **zerbaiten ondoren**, hots, zerbait gertatu eta gero egin beharra izaten da, berandu, garaiz gero.



Sartzerakoan ez al da **sartzean** edo **sartu bitartean** espresioen parekoa? Eta **sartutakoan**?
Luisa.

Erantzuna

Luisa, hona hiru horiek noiz edo zertarako erabiltzen diren:

- **sartzerakoan** (sar+tze+ra+ko+an): **sartzera** goazeneko mementoan. Beraz, hurbileko aurrekotasuna adierazteko erabiltzen da.
- **sartzean** (sar+tze+an): sartzea eta beste zerbait une berean izan direla adierazteko, hau da, aldiberekotasuna markatzeko.
- **sartutakoan** (sartu+ta+ko+an): sartu eta berehala zerbait gertatu dela adierazteko erabiltzen dugu.

Ea, adibide honen bitartez ulertzen dugun kontua:

Zein mementotan ohartu zen Ronaldo kartera etxean ahaztuta utzia zuela?

- **Dendan sartu aurretik**
 - *dendan sartu baino lehen.*
 - *sartzerakoan*: dendan sartzera zihoan mementoan.
 - *sartzekoan*: dendan sartzeko mementoan.
 - *sartzekotan zela*: sartzeko puntuan zegoela.
 - *sartzeko zorian zela / zegoela.*
 - *sartzeaz zegoela.*
- **Dendan sartzean**
 - *sartzeaz batera*: sartzearekin batera.
 - *sartu bitartean*: sartzen hasia zela.
 - *sartzen ari zen bitartean*: tarte hartan.
- **Dendan sartu ondoren**
 - *sartu orduko*
 - *sartu den orduan*
 - *sartu bezain azkar*
 - *sartu eta orduantxe*

- *sartu besterik egin ez zela*
- *sartu bezain laster*
- *sartu berri zela*
- *sartu denean*
- *sartutakoan*
- *sartu ondoren*
- *sartu eta gero*



Pantxika, andere jakintsu hori, zer alde dago **beranduago** eta **geroago** bi horien artean? Ez al dira gauza bera?
MARTINA

Erantzuna

Martina, jakin badakizu **berandu** eta **gero** bi gauza direla; **beranduago** eta **geroago** bereizteko izan ezazu hori gogoan. Hona adibide bat zalantzak argituko dizkizulakoan:

Trena 9etan ateratzekoa zen.

- Pello 08:30ean iritsi zen, **oso goiz**.
- Pitxi **geroxeago**, handik hamar minutura, edo hamar minutu **geroago**, 08:40an, alegia. Baina **ez** zen **berandu** iritsi geltokira.
- Edurne, handik 5 minutura edo 5 minutu **geroago** iritsi zen, baina hau ere **ez** zen inondik ere **berandu** iritsi.
- Kontxi 9etarako bi minutu falta zirela heldu zen, **garaiz** heldu zen, hori bai.
- Denek, zer esanik ez, hartu zuten trena. Ez, ordea, Kikek, 09:10ean iritsi baitzen, **berandu**, alegia. Ritxik ere ez zuen trena hartu, 09:20an iritsi zen-eta, hogeitamiunutu **berandu**, Kike baino 10 minutu **beranduago**, alegia.

Ohartu zara Pello baino **geroxeago** iritsi dela Pitxi, 10 minutu **geroago** iritsi baita, ez askoz ere geroago, **geroxeago** baizik. Gogoan hartu, Martina, horrelakoetan ez duzula **pixka bat geroago* esan behar, **geroxeago** baizik.

LEHEN EDO LEHENENGO ETA EZ LEHENGO

Zereginak edo *gauzak* nolanañi sailka daitezke? ordenatu ezean, edo behar ez den hurrenkeran jarritz gero, kasurik onenean, emaitza urria izan daiteke, hala holakoa, kaxkarra, eta, okerreko kasuan, ezusteko larriren bat ere gerta liteke.

Kaonetik sortu eta kosmos bilakatu zen errealitate honetan, ordenak garrantzi handi handia du, bai gauza handienetan, bai txikienetan, xumeenetan. Zoaz zu zeu ere AC/DC edo horrelako talderen baten kontzerturako txartelak erostera, eta ea uzten diozun atzetik etorritako inori ere aurrera pasatzen, erreskadan euritan edo eguzki galdatan, orduak eta orduak egon ondoren. Bai zera!



Baina, nola? **Primero** ez da **lehen**go?
Erruperto.

Erantzuna

Ez, mutikoa, ez. Euskara batuan *primero* esateko honako aukerak dituzu:

- **lehen**
- **aurren / aurreneko**
- **lehenbiziko**
- **lehenengo** (EZ **lehen*go)

- **Aurreneko** betebeharra.
- **Lehenbiziko** amodioa.

Beste kontu bat da *noizko?* galderaren erantzuna: lehen, oraingo, geroko.

- **Lehen**go euskaldunak, *oraingoak* eta *gerokoak*.
- **Lehen**go ohiturak eta *egungoak*.



Pantxika, **el segundo fue** bai... baina, **fue segundo, entró en segundo puesto...** ez dakit nola esan. Azalpenik emanen al didazu, mesedez?
Mari.

Erantzuna

Tourrean esate baterako, zein izan zen *lehena*? Zein *bigarrena*?

Lehena Urtia izan zen, **bigarrena** Sandia, eta **hirugarrena** Berendia.

Nola sartu ziren? Nola gelditu ziren? hurrenkera: **lehenik** Urtia, **bigarren(ik)** Sandia eta **hirugarren(ik)** Berendia.

Lehenik, aurrenik, lehendabizi.

- **Lehenik** aparailu honen ezaugarriez arituko naiz, **bigarrenik**, funtzionamenduaz eta, **azkenik**, **hirugarrenik**, modelo bakoitzaren kontsumoaz.

NOIZTIK? NOIZ ARTE? ZERTARAINO? HIRU GALDERA EDER!

Betiko, Jainko! Esaten zuen gure izebak, zerbait hondatu edo hautsi eta botatzeko zela ikusten zuen guztietan. Guk, artean haur ginelarik, irri egiten genuen, baina horrelakoak adituta ohartu egiten ginen gauzak ez ezik, gu geu ere nolabait errateko, ez *ginela betiko*. Oraingo gazteek ez dute eskuarki izaten izebarik etxean, baina bai hipermerkatua etxe ondoan, ordea, eta bertan erosten dituzten gauza guzti-guztiek izaten dute irudi bitxi bat, barra-kodea, alegia, iraungitze data erakusten duena, produktuarena, jakina, ez gurea... eta beharrik hala den!



Bi kontu, Pantxika, lehenengoa; noiz erabili **noiz arte?** eta noiz **zertaraino?** eta, bestea, **Baionaraino** bai, baina **Baiona arte** ere esan daiteke?
Fermin.

Erantzuna

Lehenengo kontuari buruz pare bat azalpen: “*noiz arte?*” galdetzen dugunean, “*zein memento arte?*” ari gara galdetzen. “*Zertaraino?*” hori erabiltzen dugunean, ordea, zertara iritsi edo zein ondorio izan zuen zerbaitek galdetu nahi dugu. Adibide soil bat:

- **Hil arte** aritu zen lan hartan: ez zen lanez aldatu; hantxe segitu zuen, bizi guztia lan hartan aritu zen.
- **Hiltzeraino** aritu zen lan hartan. Lan hura gogorra, txarra zen, eta, egun batean, lehertuta, hil egin zen, lanaren kondizio txarren ondorioz.

Bigarren kontuari dagokionez, biak ongi daude nire ustean. Lehenengo kasuan, **Baionaraino** horretan, zein tokitaraino adierazi nahi dugu; bigarreanean, aldiz, **Baiona arte**, noiz arte: *Baionan elkar ikus dezagun arte*.



Ez dakit inoiz nola esan behar dudan; **astelehen arte** ala **astelehena arte?** Mila esker, Pantxika.
Endika.

Erantzuna

Endika, pentsa ezazu segundo batean, egunero erabiltzen dituzula honako hauek: gero arte, bihar arte, orain arte, gaur arte.... horiek denak **aditzondoari arte** gehituta osatzen dira.

Aditzondoak ez, baino, **izen bat** dugunean, bi aukera ditugu:

- *astelehena arte, datorren igandea arte, Sanferminak arte, oporrak arte, zazpia arte* (eguna), *zazpiak arte* (ordua)...
- -(e)ra arte, -(e)tara arte: *astelehenera arte, datorren igandera arte, Sanferminetara arte, oporretara arte, zazpira arte, zazpietara arte*...

ZENBAT DENBORA... ?

“Dena zenbatu behar! Beharrezko ote zaigu dena zenbatzea? Den-dena? Zorion mementoak ere bai? “

Horrela galdetzen dio behin baino gehiagotan ikasle batek Pantxikari. Denbora *zenbatu gabe*, hala ere, ezin bizi: urrunago jo beharrik gabe, goizean *esnatu eta berehala*, ez dugu, bada, jakin nahi izaten *zenbat ordu* egin ditugun izaren artean lo goxoan? Zer ordu den eta beraz, *zenbat minutu* ditugun gosari txikia egiteko, dutxatzeko... eta halatan, lanera garaiz heldu?



Pantxika, *zenbat denbora?* galdetzen dugunean badira halako aditz bereziak egia esan, larri bidetik naramatenak. Adibidez, **kostatu**, **iraun**... zorioneko euskara! Pilartxo.

Erantzuna

Ez etsi, Pilartxo, eutsi! Gainera, egia esan, kontutxo hau ez da beste munduko zera. Ezetz, bada! Begira, zuk aipatutako aditz horiek direla eta, honela jokatuko nuke nik:

- **Kostatu.** *Zenbat denbora kostatu* esan ordez, erabiliagoak dira ondoko hauek:
 - zenbat **denbora behar** / zenbat **denbora kendu**.
 - *Zenbat denbora kenduko dizu ordenagailua-eta etxera eramatea?* *zenbat denbora kostatu zaizu ordenagailua etxera eramatea* baino politagoa da.
 - *Zenbat denbora beharko da konpontzeko?*
 - *Zenbat denbora behar izan zenuten Beriainera igotzeko?*
 - *Ez zion axola zenbat denbora beharko zuen.*
 - **Lau ordu eman behar izan nituen.**

- **Iraun.**

Iraun aditza beti pluralizanterik gabe erabiliko dugu; alegia, **hamar ordu iraun du bizirik** esan beharko dugu eta ez **iraun ditu*.

Hainbat adibide:

 - Zenbat denbora **iraun zuen** filmak? -hiru ordu *iraun zuen*-
 - Kantaldiak bi ordu **iraun du**.
 - Sei egun **iraun du** jan gabe Patxik.
 - Prozesu horrek segundo bat edo 25 segundo **iraunen du**.
 - Telefonoaren bateriak ez du batere **irauten!**

MAIZTASUNA

Egunak bizitzan behin bakarrik argituko balu, denbora luzea eginen omen genuke esperoan, geure burua ospakizun hartara prestatzen. Antzinako ipuin batek hala dio, behintzat. Baina, zorionez, fenomeno ezin ederrago hori goizero-goizero gertatzen da, baina, anitzetan, edo aintzat hartu ez, edo erreparatu ere ez diogu egiten. Ohitu egin gara. Beste zenbait kontutan, aldiz, zerbait behin bakarrik gertatuz gero, horrek ere grazia galdu egiten ote duen. Ohikoa eta ezohikoa: egunerokoa, eta bizitzan behingoa bi mutur, biak ala biak garrantzi handikoak.



Noizero edo *noizoro* zuzenak al dira, Pantxika? Eta *autobusa bost minuturo pasatzen da* esaldia? Bianditz.

Erantzuna

Ez, gaixoa, ez; *noizero edo *noizoro horien ordeztu honela galdetu behar dugu:

- **Zenbatetik behin?**
- **Zenbatetik behin izaten duzue ebaluaketa?**

Eta honela erantzun:

- **Astehenero / Hamabostero / Hilero.**
- **Hamabost egunetik behin.**

Kasu hauetan, izenari **-ero** itsasten diogu atzetik: astero, urtero, egunero... Baina izena zenbatzaile bati lotuz gero (bi urte, hiru aste, lau egun), izena zenbaturik erabiliz gero, alegia, **bi urtetik behin, hiru astetik behin, lau egunetik behin** erantzunen dugu (eta ez, *bi urtero, *hiru astero,*lau egunero).

- **Zenbatetik behin** pasatzen da Ubarmingo autobusa?
- **Bost minututik behin** (ez*bost minuturo).



Aizu, Pantxika, oker esanda omen dago *amaren herrira gutxi joaten naiz, aitarenera gutxiago*. Hala da? Agurtzane.

Erantzuna

Barkatuko didazu, Agurtzane, baina presaka nabil, azkar erantzunen dizut, era telegrafikoan:

- Zenbat? Bat, bi, hiru, lau, gutxi, asko.
- Zenbatetan? / Zenbat aldiz? Behin, bitan, hirutan, gutxitan, askotan.

Beraz, *gutxi joaten naiz* ez, **gutxitan** baizik, eta *aitarenera gutxiago* baino hobe, **gutxiagotan / gehiagotan** joaten naiz herrira.

AURREKO EGUNEAN / LEHENGO EGUNEAN / BESTE EGUNEAN

Askotan nahasten ditugu kontu hauek. Ikus dezagun Pantxikak zer dioen horien inguruan.



Pantxika, maitea! **lehengo** eta **aurreko** noiz eta nola erabili behar diren esango al didazu, mesedez?
Jon Mikel.

Erantzuna

Esanen ez dizut, bada? Modu argian esanen ote dizudan, hori beste kontu bat da. Beno, hitz gutxitan, hauxe duzu:

- **Aurreko egunean** esaten baduzu, *aurretik* beste egun bat aipatu duzulako edo erreferentzia bat eman duzulako da. Adibidez:
 - *19an iristekoa zen osaba zaharra Californiatik, eta **aurreko eguna** (18a, alegia) lan eta lan pasatu genuen etxe guztia garbitzen eta txukuntzen.*
 - *Oraingo honetan gurean eginen dugu afaria, **aurrekoan** zuenean egin genuen-eta, eta hurrengoan, Nekane eta Xabierrenean.*
 - **Aurreko urtea** txarra izan zen niretzat (aurretik aipatua duzu urte jakin bat eta hura ona izan zen; horren aurrekoa, aldiz, ez).

- **Lehenengo egunean, lehenengo batean, lehenengo hartan...** orain baino lehenagokoak dira, baina zehaztu gabeko egunak edo mementoak dira.
 - **Lehenengo egunean, joan zen egunean, euskaltegira nentorrela, San Nikolas kalean ikusi zintudan.**

- **Beste egunean:** bi egunetik bigarrena. Mesedez, Jon Mikel, ez ahaztu *beste egunean* eta *lehenengo egunean* ez direla gauza bera.
 - *Bi egun eman genituen Parisen; **egun batean, lehen egunean**, museoak eta ikusi genituen, eta **beste egunean, bigarrenean**, Paris la nuit ederki gozatu genuen.*



Ez dakit zertan diren diferenteak **egungo** eta **eguneko**. Azalduko didazu zuk, Pantxika? Gentzane.

Erantzuna

Bereizten errazak dira, Gentzane; zuk, astez, jate txera joan eta zer eskatzen duzu?

- **Eguneko** menua, ezta?

Baina:

- Greziaren **egungo** egoera beldurtzeko modukoa da, dudarik gabe. Orain bost urte baino askoz ere larriagoa
- **Egungo** teknologia ez da XX. mendearen hasierakoarekin konparatzekoa.

ABIADURA

Adiskide onarekin orduak labur.

Zoaz *agudo*, *ibili poliki eta azkar etorri* esan omen zion behin Luzaideko aita batek semeari. Luzaidarrak ongi zekien *poliki* hitzaren esanahia. **Poliki** ez baita *despacio* bakarrik, erritmo *politean* ere izan daiteke: *zeinen poliki mintzatzen den euskaraz neskatiko hau* aditzen dugunean, horixe adierazteko izaten da, modu politean aritzen dela, hain zuzen. Esanahia, hortaz, urrun dago **motel** hitzetik, jakina, baina ez dator bat, etorri ere, **astiro** hitzarekin, ehuneko ehunean, behintzat, ez. Izan ere, norbaiti *astiro, mesedez* esaten badiogu, zera hori egiteko *hartu behar duen denbora* hartzeko esaten ari gatzaizkio. Beste muturrera jota, hori dira **agudo** eta **azkar** terminoak ere, zeinek bereari eusten diola; bata, berehala hasteko eskaria baita; bixi-bixi egiteko, bestea.



Gauzak oso azkar egin ditugula edo egin behar ditugula... horrelakoetan nola adierazi *presa* ideia hori? Adibidez, **en un pis pas** nola esango zenuke zuk, Pantxika? Besarkada handi bat, potxola! Gentzane.

Erantzuna

Modu asko dugu *presa*, azkartasuna... azaltzeko, Gentzane. Hona adibide batzuk, ea lagungarriak zaizkizun. Hori bai, irakur itzazu *poliki*:

- Batzuetan denborak aurrera egiten ez duela ematen du; beste batzuetan, berriz, **begi hertsiki ireki batean** edo **begi kliska batean** joan zaigula iduri du.
- 12 urteko neskatik-mutikoez dena **bristi-brasta**, elkar bultzatzen, hori, **tarrapata batean** egiten dute, denborarik ez eta egiteko asko balute bezala.
- Aizue, lagunok, hau lana! Hau martxa! Egia esateko, nekatzen hasia naiz, zuek ez? **Hatsarte batean** Roch-era jaitsi eta kafetxo bana hartzea, zer, gaizki?
- Maitane, zoaz dendara eta ekar ezazu olio, baina **berehala**, e? ez hori gelditu lagunekin jostaketan; **han orduko hemen**, e? aditu duzu, ezta?
- Kontutxo hau ez da **gauetik egunera** konponduko. Pazientzia hartu behar duzu, Joxel!
- Gustukoa zuen lana, eta, horrexegatik, **di-da batean** egin zuen, azkar eta ongi.
- **Aitarenekin** dutxatu, jantzi eta joan egin zen.
- **Ahalik eta lasterren** moldatu beharra dugu asunto hau, **berandu baino lehen!**

KONPARAKETAK DENBORA KONTUETAN

Konparaketak zailak zaizkiola dio jende askok, dela ikastola edo euskaltegitik kanpo euskaraz aritzeko aukera txikia duelako, edo dena delako arrazoiengatik. Esan beharrik ez da, pertsonen eta gauzen gain, hamaika kontutxo konparatzen ditugula eguneroko komunikazioan, hala nola, moduak, zirkunstantziak... egia esan, ia dena konpara daiteke, eta, zer esanik ez, denbora elementuak.



Pantxika orojakile hori, koadrilako sasijakintsu batek ez dit bada esan **pixka bat lehenago** oker esanda dagoela? Zer uste ote du bada marimaixu txotxolo horrek? Zer diozu zuk?
Santi.

Erantzuna

Santi, Santi, Santiii... txiribi txiribiteeero! Laguna marimaixu txotxoloa izanen duzu, baina ez dabil oker! **Pixka bat**, zerbaiten zati txikia da, eta, beraz, zerbait hori zatigarria izan behar du: *gazta pixka bat*, *ardo pixka bat*... eta *denbora pixka bat* ere izan liteke, denbora ere zatitu egiten baitugu: egunak, orduak... hor duzu espresio jator hau: *zaude pixka batean*. *Lehen*, *gero*, *gazte*, *zahar* eta horrelakoak, berriz, ez ditugu zatitzen, eta, horregatik, konparaketak egitean, graduatu nahi baditugu, honakoak erabiltzen ditugu: **lehentxeago**, **geroxeago**, **gaxteago**, **zaharxeago**... -xe horrek adierazten digu aldea oso txikia dela. Aldea zenbat eta handiagoa izan, beste honako hauek erabiltzen ditugu: **lehenago**, **frankoz lehenago** edo **askoz ere lehenago**.

Baina denbora kontuez ari garela konparazioak egiten, segidan jarriko dizkizut gutxitan erabiltzen ditugun beste kasu batzuk:

- Zu **hainbestetan** izan naiz ni bilera horietan.
- Zuri **hainbestetan** edo **gehiagotan** gertatu izan zaigu guri hori.
- Behar baino abiadura **handixeagoan** zebilen, eta isuna ezarri zioten.
- Ez, ez... joan zen hilean ez... **askoz geroago** ikusi nuen nik hori parrandan, **hil aurreko egunean** edo bizpahiru egun **lehenago**!
- Zu baino **lehentxeago** iritsi da horrako lasterkari hori helmugara.
- Picassoren koadro hori gerra baino **lehentxeagokoa** da, 1934koa edo 1935ekoa.
- **Behar baino maizago** etortzen da osaba gure etxera.
- **Nahi baino gutxiagotan** izaten ditugu egun libreak.
- **Uste baino azkarrago** bukatu zuen lana.

EDUKIEN AURKIBIDEA ALFABETIKOKI

Abiadura 30	Gero 21
Adin 8	Gutxiagotan 31
Agudo 30	Hamar urte hauetan / honetan 19
Ahalik eta lasterren 30	Han orduko hemen 30
Aitaren batean 30	Hatsarte batean 30
Aldi 9	Hemendik bi astera 21
Aro 6, 7, 9, 13, 15, 17, 18, 22	Hil 13, 15, 17, 22, 26, 28
Aspaldi 18	Honetan 8, 13, 17, 19, 21, 22, 25, 29
Aspaldian 18	Honezkero 20, 22
Asteko egunak 12	Inoiz 16, 22, 26
Asti 9	Iraun 27
Astiro 30	Jadanik 20
Azkar 30	Joan behar dut 21
Azkenean 22	Joan beharra naiz 21
Begi hertsia ireki batean 30	Joatekoa naiz 21
Begi kliska batean 30	Kostatu 27
Berandu baino lehen 30	Lehen 18
Berandu(xe)ago / gero(xe)ago 24	Lehenago 31
Berehala 23, 27, 30	Lehengo / lehenengo / lehenik 25
Beste egunean / aurreko egunean 29	Maizago 31
Beta 9	Maiztasuna 28
Bi aste barru 21	Motel 30
Bi asteren buruan 21	Noiz arte? 26
Bristi-brasta 30	Noizbait 16, 22
Dagoeneko 5, 20	Orain dela 18
Data 15, 26	Oraindik 10, 19
Denbora atzizkiak 9	Ordu 10, 17, 26, 27
Denbora eta eguraldia 5	Orduan 5, 7, 19, 22
Di-da batean 30	Sartu 8, 23, 24, 25
Egun 7, 11, 12, 15, 17, 29	Sartutakoan 23
Egun on! 11	Sartzean 23
Egunero, astero 28	Sartzerakoan 23
Egungo / eguneko 29	Tarrapata batean 30
Garaiz 24	Urte 8, 10, 11, 13, 14, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 28, 29
Gau 11	Urteurren 14
Gauetik egunera 30	Zenbatetik behin? 28
Gaur 11, 26	Zertaraino? 26
Gazte jendea 7	

